

Martin Ugalde: "Ni, oinarriz, kazetari naiz"

Luis Fernandez

Euskaldunon Egunkaria, 1997-11-09: 10-11.

Martin Ugalde (Andoain, 1921) bere jaioterrian seme kutun izendatuko dute gaur. Ikuspegi eta norabide argia erakusten duen bizibidea da ugalderena: kazetari izatetik saltoa eman du literaturara, eta aldi berean gaztelaniatik euskarara, eta alor horretan lortu duenarekin "harro" dagoela aitortzen du. Euskararen aldeko bere konpromezu argiak politikarekin desilusioa sentitzen eraman du aldi berean. Azken aldi honetako bere "borrokarik handiena" EGUNKARIAren aldekoa izan da, etxe honetako administrazio kontseiluko lehendakari gisa, eta lan horrek eman dizkion poz eta nekeak ere aitortzen ditu elkarrizketa honetan.

– Zein esperantza zenituen autogobernua duela 20 urte? Nola alderatzen duzu hori gaurko errealitatearekin?

– Ezin da esan ezer egin ez dela. Ezin da ukatu. Estatutuak zerbait lortu du 18 urtean, baina ez du bete behar zuena. Neurria jarri zitzaion Estatutuari, hori onartu zen, agindu zuten lege bezala; baina gertatzen dena da ez dutela bete, eta gainera esan dute ez dutela beteko. Orduan, hitza ez badute beteko, jango badute, zer posibilitate ikusten dugu horretan?

– Uste duzu hemen egin den politikak ez diola behar adinako arreta eskaini euskarari eta euskal kulturari?

– Lagundu zaio zerbait, baina ez behar duen neurrian. Gauzak eman dira, baina jarri behar dugu pentsatzen behar dugula beste erremintaren bat. Esate baterako, Suitzak ditu lau hizkuntza, eta bakoitzak du babes bat, eta autonomia linguistiko bat. Guk ez dugu hori. Hemen, zoritxarrez, euskarak ez du estatutu politikorik. Horrek kezkatzen nau askotan. Entzuten ditut haurrak euskaraz eskoletan, eta kalean ere bai; baina ez da kalean behar hainbat egiten. Hizkuntza batek behar du intentsitate bat bizi. Lortu duguna gauza handia izan da, espero ez zena, baina egiten ari garen hori nahikoa da euskarari eragiteko? Proporzioan txikiak gara.

– Txiki izate horretan ez gara moldatuko?

– Hemen, juizioak, beti erdaraz... Behar da estatutu linguistiko bat. Itxaropena ez dut galtzen nik sekula. Pentsatzen dut orain dela 20 urte baino askoz hobeto gaudela. Hemendik 20 urtera zergatik ez gara hobeto egongo?

– Politikatik urrun zaude, ezta?

– Bai. Hona etorri nintzenean, EAJkoa nintzen. Ajuriagerrarekin nengoen. Ni politiko sentitzen nintzen, baina ez agintetik, kontrakoa baizik, erresistentzia egiteko nengoen preparatua. Kargu bat hartzea, hori ez zen nirea. Behar zen jende txuria politika egiteko. Gero etorri zen etorri zena. Ez nintzen sentitu partiduko. Ni ibiltzen

nintzen guztiakin, Santi Brouardekin adibidez. Kontseilari nintzenean defenditzen nuen hori zela bidea, elkartasun bat lortzea. Partiduak gaizki ikusten zuen hori. Hor ikusi nuen ni ez nintzela politikoa. Politikoeak defenditzen dute beren terrenoa; niri interesatzen zitzaidan euskalduntasuna eta euskara.

– Euskarak balu, beharrea politikaren gainetik, politikak zatitzen du euskararen gainetik.

– Noski, hori da gertatu dena. Politika egin behar da, edo armekin egin behar da. Armekin, ikusten duzu, oso momentu zailean bizi gara. Baina, beste aldetik, politikarekin, nora zoaz?

– Ez luke euskal kulturak eta euskarak hemengo partidu politiko baten programaren muinean egon behar?

– Behar luke, baina ez da sentitzen.

– Hala ere, zu Eusko Alkartasunan kokatzen zara.

– Bai, ni hor nago, baina ez dut partiduko bizitza egiten, ez naizelako sentitzen gogoarekin horretarako. Kulturari, hizkuntzari lagundu dut, eta hizkuntzari EGUNKARIA izan da nire borrokarik handiena. Gainera, bidea erakutsi digu, euskara dela batzen gaituen bakarra. Zein programa politikok batzen gaitu? Abertzaletasuna ez da erabiltzen programa oso bat bezala, poderioaren zati bat administratzeko baizik.

– Muga daukazu hemen leiho parean [Hondarribian bizi da Ugalde: elkarrizketa egin dugun egongelatik Hendaia dugu aurrez aurre]. Iparraldean, euskararen egoera are larriagoa da.

– Handik hona begira egon naiz, hemendik hara egon naizen bezala. Ni hiru aldiz egon naiz han, hona begira. Muga gaiztoa da hori. Horko euskararen egoera zaila da, dena da zaila gure herriaren bizitzan. Baina, egia esaten dizut, orain dela 20 urte ikusi eta gauza asko aldatu da. Nik itzaropena ez dut galdu. Egotea naiz triste askotan ez dudalako ikusten biderik; geure bideak geuk itxita dauzkagulako. Amorrua ematen dit elkarbizitzen beharrea elkar hiltzen hasten garenean. Jendea hil eta gero, horrek emaitzarik ematen ez duenean. Eman balu! Erreboluzio guztiak kostatu dira odola eta heriotzak, baina pasatu dira urteak eta ez dugu ezer aurreratu.

– Kultura politika posibilismoaren politika dela esaten da. Ahal dena...

– Ahal dena egitea, hori politikan erabili behar den bide bat da. Baina ikusi behar da zenbateraino lortzen den. Eurak ez badaude Estatutua osorik emateko gertu, gureak egin du edo beste bide bat hartu behar dugu. Ardanza bera ere haserretu zaie horregatik, eta izan da gizon bat geldi eta isilik egon dena.

– Hala esan liteke?

– Gure herria ez du zuzendu. Ez du aurrera atera, ez dizkio kontsignak eman. Nik ezagutu dut Jose Antonio Agirre. Agirre egon balitz hemen garai honetan, egongo zen kalean, jendea pizten eta hitz egiten, kontsignak ematen. Ardanza ez da horietakoa; ematen du abokatu bat hor jarri dutena administratzen. Ez du herria zuzendu. Hori frakaso bat da lehendakari bezala.

– EAJk badu lehendakari gai posible bat, Juan Jose Ibarretxe.

– Mutilak ez du txarra ematen baina... Nik ezagutzen dut Ibarretxe, gizon garbia eta zintzoa da, gaztea. Gizon jatorra da, baina ez badu euskararik eramaten, ez da posible

lehendakari izatea. Lehendakaria erdalduna baldin bada, zer prestijio erabili behar dugu guk?

– Zu ere egon zinen administrazioan, izan zenituen zeure ardurak.

– Deitu zidaten euskararen zuzendari izateko, bestela ez nintzen sartuko. Euskararen defentsan egiteko lan bat, eta horixe egin nuen. Han ezagutu nuen Joxemi Zumalabe diru eske, eta ni ere aritu nintzen diru eske, baina ikusi nuen ez zegoela gogorik hori emateko eta ez zegoela dirurik ere. Beste gauza batez ere konturatu nintzen. Guk egunkaria egiteko gogoia izan genuenean garai hartan. Oraindik ez genuen unibertsitateko kazetaririk. Egunkaria egiteko kazetari profesionalak behar dira. Nik egin nuen kazetaritza kanpoan eta askatasunean baina hemen ez zegoen halakorik. *Argia*-koa zen egiten zena eta ez zen profesionala. Aparte dirua eta beste gauza batzuk. Dirua ETB egiteko izan zen, eta egia esan hori egin behar zen, baina han ere ez zegoen kazetaririk. Gaur badago kazetari nahikoa, eta esperientzia ere ona duzue zuek, profesionalak zarete. Hori lortu eta gero, errazagoa izan da egunkaria egitea. Nik orduan hitz egiten nion honetaz Garaikoetxeari, baina neronek aitortu behar nion ez genuela jenderik egunkari bat egiteko. Beste aldetik, dirua ETB eta Irratia egiteko izan zen.

– Gaur egunean Kulturako aurrekontuaren erdia EITBk eramatea zer iruditzen zaizu. Nola ikusten duzu telebista eredu, erdarazko katearekin?

– Hori lotsagarria da. Euskarazkoak bere lan zatia egiten du. Bigarrenak zer? Madrildik etorritako jendearekin komediak eta gauzak. Lotsagarria. Ez dakit Zarraoak zer kriteriorekin manejatzen duen hori, zeinek agintzen dion...

– Guggenheim museoak zer pentsarazten dizu?

– Esango dizut sentitzen dudana bezala. Egon naiz proiektu horren kontra. Zergatik? Diru asko kostatu behar zuen eta gu diru horren beharrean geunden EGUNKARIAN bertan eta beste proiektuetan. Hori izan da akats edo deskonpentsazio handi bat gure administrazioan. Bestalde, ikusi dut egin duten obra eta gustatu egin zait; obra bera ederra da, nik uste nuena baino ederragoa. Orduan, horrek justifikatzen du dirua? Niretzat ez. Ikusi dugu erregea ekarri dutela, jendea sartu eta denak hori jostailu bat bezala ikusten. Aurreneko jendearekin betea ikusita badirudi zerbait egin dutela, baina hori zenbat denbora lortuko dute horrela egotea. Hemendik urtebetera gaur bezala egongo da? Ez dut uste. Izango dituzte arma batzuk eskuetan, *Guernica* ekarriko dute; horrekin animatuko dute beste tanda bat. Obra handiak ekartzen badituzte... Baina zenbait kostatuko da hori mantentzen? Gaur doan martxa hori apur bat artifizia da, lortu dute kanpainarekin. Herri bat ez du horrek salbatuko. Diru horrekin beste gauza batzuk egiteko modua egongo zen.

– Euskal artea segitu duen pertsona izan zara.

– Interesa handia izan dut artean. Ezagutu izan ditut Txillida eta Oteiza eta. Baina artistak ez dira sekula elkarrekin izan. Oso herri berezia gara, ez gara kapaz... Beste aldean nengoenean elkarrizketa egin nion Txillidari, elkarrizketa liburua. Garai hartan egin nion Oteizari beste elkarrizketa bat, liburua egiteko asmoarekin. Pentsatu nuen behar genuela jendea batu, eta deitu nion Jorgeri eta esan nion, "begira, badakit haserre zaudela Txillidarekin, baina orain dago aukera lezio publikoa emateko, euskal artearen bi gizonen bidez. Txillidari egin diot elkarrizketa, eta zeuk zurea onartu didazu, baina nahi nuke bestearekin batera argitaratu". Berak: "Nik Txillidarekin ezertxo ere ez!". Nik

ea nola nahi zuen euskaldunengan eragina izan, euskal arte baten inguruan, artistak ez baziren neutraltasun maila batean elkartzeko gai. Esan zidan baietz elkarrizketa berriz ukitzen uzten banion. Bueno, pentsatu nuen. Bi egunera etorri zen elkarrizketa eta jartzen zuen Txillida lapur bat zela, egiten zuena faltsukeria eta gezurra zela, ez zuela herria maite, aita militarra zela... "Nola ematen didazu soluzio hori, gizona? Hori ez da soluzioa, hori da herriaren aurrean agertzea ez garela kapaz bi artista elkarrekin mahai batean eserita egoteko", esan nion. "A, hori edo batere ez". Eta batere ez. Kopia daukat hor, baliteke egunen batean ateratzea nik hori.

– EGUNKARIAk poz handiak eman dizkizula esaten duzu beti.

– Bai.

– Nekeren batzuk ere emango zizkizun ordea.

– Kinka larrietan ibili gara. Dirurik ez zegoen eta ordaindu behar ziren gauzak. Kezka larriak. Dirurik ez ordaintzeko eta lortzen ez Gobernutik. Gau askotan egon naiz lorik egin gabe. Pentsatzen nuen: daukadan gauza bakarra etxe hau da, eta pentsatzen nuen etxea kentzen bazidaten, ea non geratzen nintzen, lan ordaindurik ez eta. Hori gauza erreal bezala bizi izan dut nik. Bengantzak izaten dira izugarriak, eta administrazioak nahi bazuen, mendean geunden. Bati etxea kentzea ez da horrenbestearinokoa, okerragoak egin dituzte. Oso momentu txarrak pasatu ditut. [Joseba] Arregiren kontrako borroka gogorra izan zen. Herriko laguna dut hori, aita laguna dut; eta bitartean, Guggenheim egiten ari ziren. Hala da. Orduz gero, Guggenheim gure kontrarioa zen. Perspektiba galdu dugu, baina halaxe zen; haiek edo gu. Eta momentu horretan ez genuen guk irabazi, Guggenheimek irabazi zuen. Gero gauza pixka bat, aldatu da. Ikusi dute EGUNKARIA bizirik uztea hobe dela hiltzea baino. Horregatik utzi gaituzte, ez maite gaituztelako. Herri honetan sektario batzuk gara, baina EGUNKARIA onartua izatea lortu dugu. Asko irabazi da, eta gero eta hobeto ari gara egiten.

– Zuk zer titulu ematen diozu zeure buruari: idazle?, kazetari?

– Ni, oinarritz, kazetari naiz, eta kazetari bezala igo naiz gora literaturaren bidean. Kazetari naiz, eta izan ez banintz hasieratik, ez nuen nire bidea egingo. Kazetaritza oso gai serioa da, kazetaritzaren beharra bada. Literatura ere bai, baina kazetaritza da lehen pauso erresponsable bat. Kazetaritzan ni ez naiz ibili sekula egunerokoa, notizia ez dut landu. Aldizkarietarako ibili naiz. Erreportaiak egitea niretzat izan da ipuin eta narratibarako eskola. Narratibaren eta erreportaiaren artean badago zubi bat, eta hor egin nintzen ni idazle, Venezuelen, lan asko eginda, asko irakurrita. Idazteko behar dira ereduak. Nik euskaraz ez dut maisurik izan zeren euskal klasikoak ez dira idazle handiak. Herri bakoitzak baditu bere lorpenak, eta guk baditugu geureak, baina nik nahi nuen idatzi euskaraz Venezuelen venezuelarrek idazten zuten bezala. Horretarako izan zen borroka handi bat. Bidea zen eredu onak aurkitu, ipuinlari onak, eta teknika ikasi. Hizkuntza batean ikasitako teknika beste hizkuntzara pasa liteke. Venezuelen egin nituen gauza guztiekin ari nintzen preparatzen gero hemen egiteko: kazetaritza hemen egin eta ipuinak hemen idatzi. Baina etorri nintzenean konturatu nintzen ni ez nintzela ongi etorria; ikusten ninduten kanpoko estiloak lantzen. Hamar urte behar izan nituen ipuinekin euskaraz sariak irabazten hasteko. Baina gaur idazten dut euskaraz, teknika amerikanoarekin. Ingeniarrien teknikak ere kanpotarrengandik ikasi behar dira. Nire

ipuin euskaldunek badute beste tonu bat, nazioarteko tonua. Lortu dut gai euskaldunekin, gertuko gaiekin, ipuin indartsuak lortzeko gar hori. Harrokeria ematen du, baina hori nahi nuen, eta lortu dut.

– Historia idazten egin duzun lana ere aipatu nahi genuke.

– Etorri nintzenez ikasi nahi nuen. Joan nintzen liburutegietara eta ez nuen aurkitzen modelo. Artikuluak bai, Los Fueros edo Gipuzkoa, holako gauzak bai asko, baina horrek ez du ezer ematen. Hasi nintzen bila, iturri bila, liburutegiz liburutegi, bi urtetan. Iturriak bazeuden adibidez Madoz nafarra. Horiek lortu nituenean, beste gauza bat bilatu nuen; gure herriko historia zegoela gizon handi batzuen buruan, eta pentsatu nuen aurrera egin behar nuela horiekin hitz egiten, elkarrizketak egiten. Hor Koldo Mitxelena. Gure historiaren zati handi bat, hizkuntza gauzak hor zeuden, baina ez zuen idazten. Gauza bera Joxe Migel Barandiaran-ekin. Historiaurre guztia hor zegoen bere buruan, baina ez zuen argitaratzen. Orduan, kazetari bezala konturatu nintzen egin behar nuela gizon, horien jakinduria hartu, elkarrizketak egin. Lortu nuen historiaren sintesia ateratzea [*Síntesis de la Historia del País Vasco*]. Kazetari bezala pentsatzen nuelako izan zen, bestela ez nuke lortuko. Horrela, lehenengo aldiz eman zen herri baten historia, xumea eta datu gutxikoa, baina herri baten konfigurazioa ematen zuena. Historia idazten hazi nintzen kazetari bezala, eta historia idatzi nuen. Kazetari bezala egin daitezke gauza asko, ondo apuntatzen badituzu gauzak, ondo finkatzen badituzu, bilakaera ona baldin bada. Historiografia falta zela? Falta zen, baina ezin nuen itxoin azaltzeko. Liburua atera nuen behar zenean: jendeak behar zuen Euskadiren konfigurazio bat. Hori eman nuen, lortu nuen, kazetari bezala.